zein izandu dan nagusi.

Esaten zuten illaren lauan
ateratu zen duának,
berriz zortzian irabaztea
izango ditu lanak,
milla peseta eta bandera
arrapatzen dituanak,
merezi ditu probintziako
eta Bizkaiako famak.

Urte batian Donosti ortan
paratu dute bandera,
orregatikan pentsatu degu
etorritzia orrera,
onoreko letra eder batzuk
jarrita dauzka erdera,
kofradiako benta etxian
gordeta daukagu bera.

Gure mutillak artzen zioten
arraunai ondo tamaña,
zeregatikan gertatu zaigun
oso kuadrilla biguna,
arraunlariak biskorrak eta
patroya berriz txit fiña,
bestela nola egingo genduan
guk egin degun azaña.

7.- Gure patrioiak arraunketa ona
zigunian guri ikusi,
korajez laister ujuka guri
atzetik zitzaigun asi,
kontxa onetan gaurkuan zuek
izango zera nagusi,
orla bogatzen egun gutxitan
nola dezute ikasi.

8.- Santa Clara allegatuta
deitu zigun espasio,
mutil maitiak zuekin beti
izaten nitzan fio,
txapela eskuan artuta berak
koraje batekin dio,
auxen naikua dezute eta
ez batere egin geio.

9.- Banderan buelta emanda gero
brankas giñanian jarri,
parrez atzetik asi zitzaigun
begiratu mutillari,
esaten zigun, arraunketa oyek
artuagatikan sárri,
zubena da ta nasai bogatu
ez kasorik ein iñori.

10.-Lenbizikuan zazpireun eta
gero bandera ta milla,
animaturik etorri giñan
ara pesetan oyen billa,
kobardituta etziran egon
Manuel eta kuadrilla,
esaten dute bota dirala
salidan amaika milla.

11 .-Ogei eta bat minutu eta
sei segundo errekorrian,
alaxen oyek markatu zuten
juzgauan eta errian,
tranparik gabe egin degu guk
egun argiren erdian,
alare sano gelditu gera
miñik ez degu gerrian.

12,-Irabazita genduztenian
banderakin ikusi,
Donostiako andre batzuek
burlaka ziraden asi,
ze uste zuten juango giñala
kanpora andik igesi,
ama semiak ba dituen
orain dezute ikasi.

Arrain andi bat atrapau ebenekoak

1.- Milla ta zortzireun
laroi ta amarrian
Aprillan ogeia zan
igande egunian,
esplikatuko ditut
euskera garbian
zer gertatu zaizkigun
Ondarroako errian.

4.- Arrain ori askok
ikusi duaurten,
baña argana iñor
etzan atrebitzen,
arrain txiki guziak
asia da jaten
ez digu orrek utziko
ezer irabazten.

2.- Baserrin txalopian,
Isidoroatzian,
Itxasora jua ziran
igande goizian,
arrain ori topa zuen
milla bi ta erdian,
arponada ematera
preparatu zian.

5.- Ego bat zeukan bistan
gorputza eskutuan,
begiratu guziok
ara nun dijuan,
argana dijuna
jartzen da arriskuan
preparatu gaberik
ez zaiteze jua.

3.- Arrain íkaragarri bat
dute arrapatu,
jende asko egin du
orrek ikaratu,
orren pasadizua
nai det publikatu,
bertsuak argatikan
ditutateratu.

6.- Arrimatu baño len
arrañarengana,
mutil bakotxak artu
bakotxakaldauna,
derrígor asten ba da
batu alkargana,
bestela galduko da
deskuidatzen dana.

- 7.- Ia mutil maitiak
unamok libratu,
arpoi ta aparejuak
ondo'preparatu,
Liborio petxura
ondo apuntatu,
bestela arrain orrek
danok jango gaitu.
- 8.- Gora etorri zanian
kostauan trinkatu,
nai izanagaitik
ezin sosegatu,
amarra bat emen,
bestia soltatu,
nai zuen baña andik
ezin zan libratu.
- 9.- Gure armamentua
preparau artian,
arrain ori iges eginda
zeuan apartian,
arrapauta jo genduen
tripa barrenian
bein ere etzan gelditu
ondora artian.
- 10.- Onduajo zuenian
aren arrabia,
etzedukatelako
unama berria,
batian ala eta
bestian eVria,
ezin sosegaturik
an zan komeria.
- 11.- Gora etorri zanian
kostauan trinkatu
nai izanagaitik
ezin sosegatu,
amarra bat eman
bestia faltatu,
nai zuen baña andik
ezin zan libratu.
- 12.- Beste txalupetatik
zuten begiratzan,
txalupa orrekin zer
ote da gertatzen?
Baña alako gauzarik
etzuten pentsatzen,
bestela laister ziran
gugana anparatzen.
- 13.- Goiko partera zuten
bigarren tirua,
nola portatua dan
esatera nua,
indar gogorrarekin
golpe segurua,
ederki azertatu
zioten burua.
- 14.- Bi milla jo zuten ta
irurak bitarte,
arrain ori zebillen
gogor eta fuerte,
lagunak ere kansatu
ba zeuden bastante,
gogorra izan arren
sosegatu dute.

15.- Berrogei ta bi oñeko txalopa bakarrak argana allimatzeke etziraden txarrak, alkarri lagundutzen gaste eta zarrak, etziran errez bentzitu arraiñan indarrak.

16.- Seireun arropa pasa zan animalia, txalopa batentzat da ikaragarria, sinistu nai dubenak orren ibillia istoria onetan daukate jarria.

17.- Amaika ta erdietan etxera asirik eguna pasa dute ezin ekarriak, bi treñeru txalupak atoian arturik, barra ekarri dute oraindik bizirik.

18.- Bilbora eraman gure enkargukuak, laister jaube egin dira Club Nautikokuak, eta errekonozitu dute medikuku arrain ori galdu du buruko tiruak'.

19.- Esaten zuten: Au arrain itzal eta baltza, bear du izan orrek lantzia zorrotza, garunak apurturik jo dio biotza, orduan izandu da orren eriotza.

20.- Arrain orrekin izan diran nagusiak esplikatatu dituzte ango irabaziak, ainbeste danik sinisten ezdute guztiak, ogei bat milla errial ba dira pasiak.

21.- Ogeigarren bertsuan ditut despeditu arraiñan pasadizuak orra esplikatatu, Eibarren bear ditut oyek inprentatu gastiak ikasteko papel bana artu.

1.909 urteko Mayatzaren 24'ko galerrena.

Egillea: Fermin Imaz.

- 1.- Mayatzaren ogei ta
laugarren arratsian,
galerna bat sortu zan
modu zorrotzian,
urrengo egunian
kontu txarrak zian,
txaluparen granorik
etzala etxian,
zer pena izango zan
askon biyotzian.
- 2.- Ondarrua da asko
kastigatu dana,
fameli orietan
bada naiko lana,
zierto ba dakit gaizki
egongo dirana,
anparatu nitezke
Jaunak, al dedana,
askok bezela banu
nundikan emana.
- 3.- Itxaso sagradua
dalako meriyo,
makiña batei negar
egiñazten diyo,
b'erriz ere ezin izan
gindezke ba fiyo,
alperrik astia da
orren kontrariyo,
ito diranak ez dute
jan bearrik jaio.
- 4.- Salbatzeik etzuela
zutenian etsi,
txalupari lotuta
omen zioen utzi,
norbait agertuko zan
esperantza gutxi,
fedea bear zuten
danen gain eduki,
ala eskatzen zutela
Goikoan erruki.
- 5.- Gorputzak egiñik ura
utzirikan ala,
igari abiyatu
ziran beriala,
batek bidian ziyon
ezin zeikiala
alperrik zala orduko
aren egiñala,
pentsa zagun ortatik
penatu dirala.
- 6.- Baporía artuta
ziranian erten,
beste lagun guziak
galdetzen zioten
utzitako gorputza
ia aber nun zuten,
besua luzatuta
ziyon erantzuten,
sayatu ziran baña
billatu etzuten.



Handwritten signature or text.

Arrantzalia dabil
peligro aundiyan,
ardiyak otsuakin
bezela mendiyan,
ezer ez dute izan
joan dan aspaldiyan,
gogorra pasatu da
oraingo aldiyan
artzeko modukuak
dira memoriyan.

8.- Arrantzale maitiak
umildu gaitian
beti ibilli gabe
desgrazi tartian,
errespeta dezagun
guztiok batian
egualdian abisua
artzu ainbatian,
Zarauzko bikariyua
bizi dan artian.

9.- Jendiaren aotik
jakindu dedana,
baita ere ixilik
ezin neitekena,
oraindik orrek geiago
ematen dit pena,
osaba gizarajua ta
illoba batena,
ai zer trantze estua
pasatu dutena.

Galerren ugarik negar asko eragin eben gure errian.

Egun onetakoak ainbat etxetan.

Kontuan euki amairu itto zirala gure erritarren artean. Ara euren izenak:

Alkorta, Joakin.

Badiola, Santiago.

Bedialauneta, Enrique.

Berridi, Andres.

Egurrola, Feliziano.

Garramiola, Ebaristo.

Garramiola, Jose. (Oneik biok aita semeak.)

Illoro, Eustakio.

Imaz, Jose Manuel, bertsolaria.

Motriko, Polikarpo.


Olano, Ruperto.

Urkiri, Domingo.

Urresti, Lukas.

Galerren au Orkolaga jaunak, Zarauzko bikariuak, aurrez iragarri eban, baiña arrantzaliak itxasora joatera ausartu ziran.

Galerrena sortuta gero, arrantzalerik geienak Getariara sartu ziran. Diñoenez, eun eta berrogetamar txalupa batu ziran kai aretan eta beste ogetamar bapore. Ondarroako 80 txalupa sartu ziran an.



Chris Peto

DAIMETATIK ZERBAIT

(DETODO UN POCO)

Txistulariak

Ez neban ezagutu dukat eta marabedien denporarik. Xentimo bateko ta bikoia bai, erabillia naz, gure diruen artean.

Dukat eta errialak nausi ziran denporetara guaz. Ala gertaten zan orain 150 urte.

Orduan be irabaziak me ta premiñak nausi.

Urte orretan, gure errian, erriko txistulari eta tanbor jotzalleak ba eukezan euren eskabideak.

Txistularia erriko aguazilla be ba zan. Eta 60 dukat eukazan urteko irabazi orde. Dukat bakoitzak 11 errial eukazala kontuan eukita, 660 errial urteko.

Tanbor jotzalleak, bere aldetik, amabost dukat eukazan urteko.

Irabazien jasotea etorri zanean, txistulariari 60 dukaten orde milla errial izentatu eutsezan urteko. Besteari 15 dukaten orde, amasei dukat. Au da, tanbor jotzalleari urteko dukat bat geitu, amaika errial.

Or amaitzen ziran eskubideak.

Bete bearrak...

Txistulariak Kontsejuko batzarren deia baserrietara eroateko zeregiña eukan eta ori jakin erazotearren, edo beste orrelako zerbaitengaitik, ezin eikean geiagorik eskatu.

Orrez gañera, urterako "sueldu" barriak, domeka guztietan tanboliña jotera beartuten eban, bai eta Aratuzte edo Karnabal egunetan eta san Roke egunez be, eta... alkateak agintzen eban guztietan. Beraz, gure zaarrak ba ekiezan karnabalak egun andi lez ospatuten eta san Roke ondrazten.

Geiago: san Juan egunez Gorozikara joan bearra euken, alkateari ala irizkionetan, eta origaitik bazkariaren eskubidea besterik ez euken. Geigarrizat, nai ba eben, gizon jator eta etxekoandre zabalei edo ta etxeko neska mutillei alboradak aterik ate jotzen batu eikeena.

Ala ikusten da 1.830 urteko azken batzarrean gure erriko ordezkariak artutako erabagian:

"En la Sala Consistorial y de Ayuntamiento de esta Noble y Leal Villa de Ondarroa, la mañana de oi dia lunes veinte y siete de Diciembre de mil ochocientos treinta, se juntaron en Ayuntamiento general segun costumbre los Señores don Pablo de Zavala, Alcalde y Juez ordinario de ella, don Martin de Balzola y Dn. Domingo Jose de Madariaga Regidores, Dn. Jose Maria Martinez de Aguirre Diputado del Comun, Dn. Martin de Uriarte Sindico Pr. general de la misma, Dn Domingo de Ibaibarra, don Antonio de Garramiola, Dn. Santiago de Abaroa, Dn. Candido Jose de Lézea, Dn. Juan Baupta de Sustaeta, Dn. Domingo de Aguirre, Dn. Franco Paula de Acha, Dn Juan Baupta de Badiola, Dn Martin de Aristi, Dn Franco. de Basterrechea, Dn. Franco. de Aranzamendi, Dn. Franco. de Idoeta, Dn. Domingo Jose de Arano, Dn. Jose de Arriola y Dn. Andres de Anchustegui vecinos Concejantes y de voz y voto. A este tiempo llegó don Julián de Urrioláveitia también vecino concejante:

Acto continuo habiendo tratado con detención sobre el sueldo del ministro y Tambolintero y las obligaciones que ha de tener Acordaron que en lugar sesenta ducados anuales que aora tiene en adelante se le paguen en cada año mil reales con la obligación de que no ha de cargar ninguna cosa por razón de las combocatorias de Ayuntamientos a los caserios ni por otras cosas semejantes, y que en todos los días festivos esto es en los Domingos ha de tocar el Tamboril sin derecho alguno, y tambien por Carnabales y Sn Roque y todas las vezes que el Sr. Alcalde le ordenare, y al Tambor en lugar de quince ducados anuales diez y seis en iguales circunstancias. Que ambos tendrán obligación de subir a Sn. Juan de Gorocica el veinte y cuatro de Junio siempre que tubiere por combeniente el Señor Alcalde sin mas derechos que la comida y lo que puedan recoger en alboradas"

Errezatzalleak.

Gure errian txakurrak be arrantzale ei di.a. Ala esaten eban C. Esla batek. Nik beste bat diñot: Andrerik zitalena be errezatzallea izan dala. Bakartadean eta lagun artean.

Errezateari buruz Ondarroa'ko andrei kaleko monjak deitu leikioe. Antigua edo Santa Klara'ra, Bidarteko Ama bastertu barik; Aita Piedadekora edo Santa Kutz'era, kurutzetakoak egitea laga barik; Idurre'ra edo Gardotza'ra oiñetako baldarrez edo ta oin-utsik. Edo ta Ziarrotza'ra nai beste edozein santutegira.

Guzurra esango al genduke ondarrutar andren zeregiñik premiñazkoena, etxe-ko biarrak lagata, eta askotan eurak egin barik, errezatea izan dala?

Goizaldean eleizako atea zabaldu orduko, eleizpean errezuan. Atea zabaldu ta seiretako meza orduko kurutzetakoak eta borondatezko beste ainbat eskintza.

Meza bat amaitu orduko, "sepulturaren" aldratxoa batu ta oi ziran "pater-nosterrak" abots garbian.

Sare konpontzen, nai antxobei buru kentzen, ala gertaten zanean, nai erre-kako asketan erropak garbitzen iñarduela, errezu luzeak egiten beti. Itz-lauz batzutan edo ta kantuz askotan.

Atuntsu denporan, erriko ermita guztietan arratsalde erdian otoitzean. Ermita bakoitzeko santu bakar bat aitatu edo ta berari zuzentzea laga barik: Kurutze Santu agurgarri orreri, pekatari guztien eta miserikordi premiñadunen Aita altsua zarea-lako...; Antigua'ko Ama, zure erraietan mariñel tristien biotza daroazulako, zure oin bustietan ikusten dogun lez gaur gabeen be itxasoetan euren alde ibillia zarea-lako...; San Bartolome, eskuan daukazun kutxillo orregaz gaixo zitalen eta odol txarren ondoren eta kalte guztiak eteten dakizulako...; San Roke, kolera, peste eta izurraldi guztietan zeuri deitzen dautsuen guztiei eskua luzatzen dakizulako...; San Agustin, gure estutasunak eraginda bururik galdu ez daigun, nai ta zeuk euki zendun argitasunik merezi ez...; Santa Teresa, gure eriotzean zeure Karmengo Amaren habituagaz gure gorputz ustel eta pekataria estaltzeko ditzia euki daigun eta berak daukazan indulgientziekaz baliatuta, gure Jaunaren juzixora esperantzaz agertu gaitezen...

Eta gero, iñoiz etxean zoritxarren bat gertaten zanean... Gure gaelak ez euken amairik, ez eta errezatzallien ekiñak be atsedenek, tarteka, gaurko bustigarrien ordez, katillu bete kafesne artzeko ezik.

Merezi dabe ondarrutar andra errezatzalleak, gure erriko gauzen artean, olako oroitza berezi bat.

Ni.neuk batzuk izentatu neikez, onena zein izan zan agertzen ausartu barik. Onetan be mistika itxurakoa naiago batzuk, txoliña baiño; besteak asko esaten eban-na naiago, pentsatu eragiteko ixillaldiak egiten ebazana baiño. Norbera zelako, eritzia alako.

Gure burura datozen batzuk gogoratu daiguzan:

Erromualda,

Jospíñe,

Ana,

Petra,

Axurie...

Erreskada luzea atara leike.

Zaarragoak gogoratuko dituez Manuela Iñaxi Kikirrinekoa ta Karlota.

Banakak jakingo dituez euren abizenak, apelliduak. Izan be iñok ez eutsen eurenakin deituko. Danak, izenaren gañetik, ERREZATZALLI. Soil soilik.

REZADORAS

Constantino del Esla, en la colección Biblioteca de Cultura Vasca, de la Editorial Vasca "Ekin", de Buenos Aires, con el título de "ESTAMPAS VASCAS" con ilustraciones de F.M. Kaperotxipi, tiene publicado un libro en el que hay un capítulo dedicado a los Perros Pescadores de Ondarroa, y, como es natural, muy simpático para nosotros.

Con un cariñoso recuerdo de los perros amaestrados para nuestras antiguas lanchas pesqueras que conocimos en nuestra niñez, viene a resaltar con énfasis que "en Ondarroa hasta los perros son pescadores".

Puestos a detallar motivos, personajes, actividades o hechos de la vivencia ondarresa, podemos decir que tenemos muchos anotados que merecen su perfilación bien en la literatura o bien en artes plásticas para dejar un recuerdo perenne de ellos.

Prestamos hoy una pequeña atención a nuestras típicas rezadoras, erreztatzaileak.

Alguien me dijo en cierta ocasión que las mujeres rezadoras de Ondarroa pueden ser reminiscencia de las famosas plañideras de otros tiempos.

Sabido es que plañideras ha habido en todo tiempo y lugar. Nuestro Fuero les condenó en su sexta ley allá por el año 1.452. "... de aquí en adelante quando quier que alguno muere en Bizkaya o fuera de ella, por mar o por tierra, persona alguna de toda Bizkaya, Tierra llana, villas et

ciudad no sea osado de hacer llantos mesándose cabellos ni rasgándose la cabeza, ni hagallantos cantando".

La oración cantada, o recitada, o simplemente musitada de nuestras rezadoras nada tiene de plañideras. En realidad rezadoras son todas las mujeres ondarresas, si bien nuestra atención actual va por las directoras del rezo, las rezadoras por antonomasia.


Las rezadoras como la "Erromualda", la "Jospiñe", la "Ana", las "Petra", y otras han sido una institución para las familias y para el pueblo. Ellas han estado presentes en todos los acontecimientos de la vida local, lo mismo para impetrar que para agradecer, tanto para vivir emociones triunfales como las derivadas de ausencias trágicas.

El carácter religioso de Ondarroa no podía permitirse e/ desdén de olvidarlas.

Aun hoy continúa su actividad y a pesar de los aires más o menos avanzados y liberadores que se quieran recibir, acumular y respirar, cuando llega el momento, -hay muchos que obligan a rezar- nadie prescinde de la errezzatza-
llea, que sin tapujos, disimulos ni hipocresías, suelta su rosario de imprecaciones y deprecaciones, al que contestan todos como obligados a hacerlo por el peso de las circunstancias.

Yo diría que la errezzatza-
llea es algo así como la abadesa de la gran comunidad ondarresa en la que entramos monjas y frailes, legas y hermanos.

Dicen las crónicas que hubo tiempos en que la Abadesa de las Huelgas dominaba monasterios y parroquias, pesquerías y viñedos. Algo de eso pasa en Ondarroa con las errezzatza-
lleas. Cuando ella empieza a actuar, bajamos la cabeza, nos concentramos y decimos píamente Amen. Y años antes, cuando /a Manuela Iñaxi, la de Kikirri y la Carlota, amen, amen, amen.



Astodun arrain saltzalieak.

Arre, arre astotxoa,
arre, arre kon kon...

Gu jaio giñanean, neketan eta zartzaroan sartuta bizi ziran azkeneko emakume arrain saltzalle astodunak.

Lengo gizaldian ori zan emakume batzuen bizi bidea.

Bizi bide garratza, neketsua, kezkatia, giro eta egualdien mendekoa.

Azpeiti nai Zumarraga aldean, edo ta Eibar aldean, edo Durango ingurutan goizean agertzeko, gaberdian urteten eben astodun andrak, arraiñez beteta. Bakoi-tzak asto bat, edo bi ta iru batzutan, alkarri lotuta, erreskadan.

Beti errezaten, eta eskuak, egualdiak laga ezker, sekula geldi ez, galtzerdi edo ardi lanazko berogarriak egiten.

Gabak ontzak egan ipinten ditu ta gure arrain saltzalleak be eukiten zituen, tartetan, bideko gau ontzak. Arrain lapurretan urteten eutsen gantzeruak. Gaur gaueko bidazkariak bildurra igaroten ba dabe, kontu egin ordukoei eta emakumiei batez be zer gertatu eikioen. Ba ei zituen euren tranpatxoak bideko mamuak zein izan ete eikeezan igarteko. Baiña gaba beti gau.

Ainbat asto batzen ziran errian zeregin orretan erabilten zituenak. Nortasun bat emoteko aiña. Eta andre orreik, errien esker on eta ezaupidea artzeko illeak aiña meritu eukezan areik, errietako erpak ikusten zituen sarri euren gain. Erriko zergak, impuestoak. Ala gertatzen zan gure emakume astodunekin be. Nekez irabazitako errialeatik, erriak bere premiñetarako zerbait kendu nai. Nekeari pixua geitu. Monumentu bat merezi eben andra koitaduen izerdia bear gure lengo gizaldiko Ondarroa gaixoak!

Era onetako azkenengo arrain saltzalleak, nire gomutan, Sebastiana Otxoantezana eta Buena Lertsundi izan ziran. Buena, semeak ekarritako automobilletara aldatu eta eratu zan, baiña Sebastiana 1.927 urtean il zan, 81 urtedun, bere ibillera luze ta neketsuen amets eta gogorapenetan.

Jain eta Labako familietan be ba daukez euren zarretan zeregin ori ingurutako entzutez bete ebenak.

Las "borriqueras".

Hay casos por los que cuesta pasar. Que son casi verguenza de pueblos.

Algo de eso diría yo del acuerdo de nuestros regidores del once de Junio de 1.837.

Que se junte quince señores entre alcalde, regidores, diputados del común y vecinos concejantes y que su único temario y acuerdo se centre en las pobres borriquetas que en largas jornadas nocturnas llevaban pescado del día a los pueblos del interior, o recorrían los caseríos más apartados, parece que obliga a protestar.

El vado motrikoarra de Astigarribia no siempre fue paso de peregrinantes a Santiago. Por allí pasaban muy entrada la noche, sin más luz que la de un farolillo mortecino, las fresqueras ondarresas, con su burro cargado de pescado fresco, siempre rezando o con los ganchil/os en danza, indefensas, en un trajín pesado y agotador. O por san Miguel o Ermua para el Duranguesado.

Pues bien, nuestros rectores se acordaban de ellas para arañar/es, por jornada y carga, o sea, por viaje y burro, medio real.

Las familias Jain y Labako pueden hablar de esta vida.

Conocimos, ya ancianas, a algunas de ellas. Recuerdos de nuestra niñez nos traen a la memoria las figuras enjutas de Sebastiana Ochoantezana, que murió a los 81 años en 1.927. Y a Buenaventura Lertsundi. Esta tuvo oportunidad de cambiar de motor, al empezar sus hijos con los primeros Chevrolet de tres cambios que llegaron a Ondarroa. Asiellas quedaron eliminadas, sin derecho a indemnización alguna ni traspaso de negocio.

En sus andanzas e/ías no temían nada de nadie. Tenían mil artimañas para desenmascarar á viandantes nocturnos que les salían al paso Dios sabe con qué intenciones. Al revés. Socorrieron a algunos de ellos. Nunca les faltó valor para salvar su dignidad de mujer y demostrar su espíritu y vocación de caridad. Para ellas el "gantzero" de verdad era su propio pueblo, que sin valor para arañar en otras fuentes, les salía al paso en cada viaje, aun antes de que fueran a descansar de su caminata, para recabar el medio real hiriente.

El acuerdo arriba citado decía textualmente:

"Se tuvo indicación de la contribución industrial fogueal y jumentos. En consecuencia teniendo presente que en estos diez y siete meses no han satisfecho cosa alguna.

se les dej'a los atrasados. Y por cada jornada que hagan las Borriqeras con fresco se cobre medio real en cargo desde esta fecha en ade/ante, con condición que si por evadirse de esta pensión tratasen de defraudar sacando a/ camino con jornales, se les exigirá de multa cuatro reales por cada carga."

No hubo más asuntos en la sesión. A las famosas y sacrificadas borriqeras tampoco les interesaban los demás asuntos.

Kale garbitzalleak

Miel.

Miel asko egon diran lez, eta Miel "Sagua" k be bai, berari, begi bakarra zalako, "Tuerra" deitzen eutsen. Miel Tuerra.

Kale garbitzalle jatorra. Serbitsari ta borondatetsua. Bere ogi bidea eratsu eta patxadaz artzen jakin ebana.

Bein, alkate bateri, anda eroatzalleak illeta guztietarako izentatzea gogoratu ya-kon, iñoiz etxeokak eta senideak iñor ezin billatuta ibiltzen zirala ortarako-ta.

Kale garbitzalleak eta erriko serbitsukoak artu eben zeregin ori. Jantzi baltz luzeak egin eutsezan. Miel'ek Charlot'en soñekua deitzen eutsan bereari.

Goizeko lauretatik laster kalian agertzen zan. Argi barik illunpean garbitzen zitun kale kantoi batzuk. Goitik bera, etorrana etorralla, tatarrez ekarri. Egoki zan unetxo baten moltsoa egin ta gero egunez batu.

Katu guztiak ezagutzen zitun. Danei esaten eutsen zerbait bere aurretik marrauka igarotean, batez be errekaize denporetan ezagutzen ba zitun. Etxeko jaubeentzat errekadu alaiak emon be bai eurei: Joan etxera ta lotan dagonari esan izaraen epeltasuna laga ta trastiak zabaltzen balkoira agertzeko, egun ederra datorrala-ta.

Arratoiekin be ez eukan atzerarik. Eskobakin jo ta blast. Iñoiz baten bat igeska oartzan ba eban, berak: Zer? Saguak bildurtu zaitu ainbestetan? Bera be "sagua"-neko zan ba!

Ez dakit iñoiz gaixorik egon ete zan. Ezetz esaten dabe, eta berak be ala esaten eban. Gaurko garbitasun barik, iñoiz ez eban pentsatu bere zeregiñetatik gaixorik batu eikeanik.

Andrazkoei lorak esaten bera lako gitxi. Abots bete, metal otsezkoa eukan. Eguna argitu orduko, etxe aurrean garbiketean iñarduala, oraindik oean egozan andre

askok igarriko eben, eta batzuk bere lore lizuntxoak entzun be bai. Batez be zerbait jakin edo oartuta ba egoan. Baiña danak ezagutzen eben bera ta iñor asarretu ez.

Atadietako potoak ikusi ta ba ekian beretzako egoki eikezanak aukeratu ta gordeten.

Iñoiz etxeren baten zerbait berezirik jan edo edanen ondorenik billatzen ba eban, auzokoak be laster jakingo eben, bere esateko modu bereziz zirikadarik jaurti barik lagaten ez ekialako. Batez be jai andien ondorenetan.

Orrela, esate baterako, eleiz aurrean asi eta kalian bere etorralla, orduan bizi ziran geienentzat eukiko eban bere zartadatxoa:

Epan, an! Abille izaten ez daukazu gaitz. Zeuk pastelak saldu ta txanpana edan!

Pauliño, o! Sekula jai txarrik ikusi ez zuenian oraindiño!

Illari, i! Illetak nai zunari jo, ez niri!

Juana, a! Batenak baiño geiago dagoz emen. Onenbeste ollo guri jan ezkeru, neu be egongo nitzake zabal eta eder.

Tekla, a! Don Julianek kantako dau urrenguan be opera!

Errenauen! Akerranian be agiñak ez dira bart geldi egon!

Doate, e! Ama alabak zainduko zarie zuek fin fin ostera be!

Txikiñe, e! Edan kinkirrinkon ta ibili. bele-bele. Barriro be laster egongo gara gu lodi ta bete!

Zenbat orrelako!

Meza entzuteko orduan eleiz ate onduan lagaten eban unetxoan ezik, beti eskobia aldian erabilten ekian. Egia esateko beti beti ez. Iñoiz akularien batek, bera konturatu barik beragana urreratu ta koskillak egiten ba eutsazan, zaratazko txilixoak egin eta aidean jaurtiten eban. Ez bereala, nor zan konturatu ta eztenkada zolien bategaz erantzun barik eta beti betiko aupada egin barik: Eskoba kirtena ar-tzen ba dot...

Miel, Miel Tierra, bere denporan, Ondarroa'ko gizon ezaguetako bat izan zan. Ain zuzen be askok nai ez eta ezin dituen zeregin askotarako beti gertu, borondatearen truke. Alaxe bear zalakoan.

Los barrenderos.

En Septiembre de 1.926 Ondarroa bullía en fiestas.

Un berso/ar/, Brontxe, no pudo menos de cantar:

Fiestarikan asko ein degu
estropadaren izenian,
jentia ere aspertua da
geiago ezin egiñian,
da pelikulak atera ditu
bialtzeko zuzenian,
emen ikusi ez dituenak
ikusiko ditu zinian.

(Hemos tenido muchas fiestas a cuenta de las regatas. A más no poder. La gente ya se ha cansado. Se han sacado pe/ícu/as y e/ que no las haya podido ver aquí, las verá en el cine.)

Se saltaba y bailaba de día, no se podía dormir de noche y elló obligaba a nuevas ideas y nuevo jo/gorio.

En la entonces calle Mayor, hoy Garramiola, tuvieron una idea feliz. A una mujerona, de /a pro/ífera familia de los "Sagua ", le eligieron como reina de la calle. En realidad no hizo falta e/ección. Lé vistieron, le colocaron en un sillón y la reina, por su prestancia y garbo, se hizo popular. Tan popular que todo el pueblo desfi/ó por la calle rindiéndole pleitesía.

Ta bear det adierazi
Kalandiko erregiñe Dienesi

cantó el bersolari, coreó el pueblo y ambientó la Banda de música.

Miguel, su hermano, era barrendero. De los de antes. De cuando todavía se llevaban los residuos donde se podía y a donde les pedían de abono.

En su tiempo les motorizaron. El ayuntamiento les compró burros y carros. Al principio abiertos. Luego con dos tapas, que ellos se obstinaban en no cerrarlas. Los burros tenían que ser alimentados por cada barrendero. Uno de los sufridos animales se enfadó un día con su patrón y le arrancó un brazo. ¡Pobre Domingo, ex sacristán, que por mejorar de condición consiguió la plaza de barrendero por recomendación de sus dos hermanos sacerdotes!

Cuando Miguel supo que su hermana había sido proclamada reina de la calle, exclamó: Neuk eskoba kirtena artzen ba dot... "(Sicojo elmango dela escoba...) En otras

palabras: Como vaya por allí a barrer no se sa/vará ni mi hermana.

Miguelera tuerto. Por eso le llamaban "tierra".

Para las cuatro y media de la madrugada salía a la calle. En diez minutos barría todo Goiko-kale. Luego, de Kale Kutzte a la Ribera iardaba más. Mientras barría, hablaba. Hasta con el viento.

Sisop/aba fuerte, /e increpaba.

Sihabía ca/ma chicha se quejaba de falta de ayuda.

Si llovía, mejor. Con dar vía libre al agua retirando estorbos de las rejillas de los caños, iba bien.

Nunca cambiaba de táctica. Algunos días de viento Sur, en que lo apilado le llevaba el viento cuesta arriba, increpaba amenazador a Eolo: Eskoba kirtena artzen ba dot... (Si cojo el mango de la escoba... ¡)

Miguel husmeaba todos los baldes de residuos. Los revolvió con la mano. Sobre todo después de algún día de fiesta. A voz clara iba pregonando sus observaciones y soltando sus reacciones en cada portal.

Así cada botella vacía, las plumas de gallináceas, los huesos de chuletas o residuos de pescado le daban pie para congratularse y hacer comentarios públicos en cada portal o ante cada fachada, con santo y seña y apodo popular de quien los consumía. Cada cubo de basura, su comentario público y puntillero y no siempre con medida.

Era algo así como su Rosario de la Aurora.

Cuando se jubiló y vió que su sustituto, los días de viento Sur, barría a favor del viento, aún cuesta arriba, lo que a él jamás se le ocurrió, exclamaba un poco despectivo y satírico: Jesuitak be borrako dauz onek. (Este borrará hasta a los jesuitas. Quién sabe si no /e echaron de allí por demasiado listo) la andik argiegitzat bialdu eben gero!

Miguel vivía su oficio con ironía, paciencia y complacencia. Todos los domingos merendaba, solo, en alguna taberna, algún pollo, pato o conejo, (sin duda alguna una merendola opipara para aquellos tiemposí que él alimentaba con los residuos que separaba de los cubos o le dejaban aparte. Residuos sin porquerías, como. él acostumbraba decir. También eso le creaba ilusión.

Miel, un barrendero con escoba y salero.

Arrantxerak.

Errezatzalleak, astodun arrain saltzalleak... Asteko baiño ez dira. Zenbat talde aitatzeko? Gogoan daukadaz sare konpontzalleak, otarrain (*langosta*) egosleak, antxoen buru kentzalleak, "despixka" laguntzalleak, errixetalarriak, Bilbo aidean erabilten ekien aiñak...

Umetan sartutako errukia oraindik gogoan daukat. Gure ibai edo erreka baso ta zikinkeri balzak gizonak atxurrekin batu eta atara ala, ibaian erdian lagaten zan gabarrara kopaletetan, burugaiñean likin dariola, maria gora asi orduko zikinkeri orreik karriatzen ibili bear izaten eben emakume langille neketsúak, baso eta zikiñez legramua baiño balzago geratzen zirala euren lana amaitu orduko.

Arrantxerak be euki izan eben entzutea gure errian. Gerra bat baiño geiagotan aitatu izan dituez ondarrutar emakume borondatetsuak. Karlista denporetako bertsoak dira oneik:

Gero berriz bazkaldu
gendun Ondarruan,
ezeren aitzakirik,
jaunak, ez genduan;
arrantxera leialak
an izan genduzan,
arrezkero kozinan
guk egin genduan.

(Karliten gerrako bertsoak. F. Apalategí'k "Euskal mutillak armetan" liburuan batuak. "Auspoa" saila.)

Las rancheras.

Como las rezadoras y las borrikeras, en Ondarroa han sido institución las rederas, las /angosteras, las errixetalarriak íalgo así como especialistas en riñas), las añas, las despescadoras... Mujeres trabajadoras éstas que en tiempo de anchoa, al llegar con el alba las embarcaciones al puerto, entraban en las embarcaciones, vestían, un tanto osadamente para algunos, los pantalones de mar de los suyos, se arre-

mangaban y ayudaban a "despescar" la anchoa de las mallas de las redes, para que los hombres pudieran librarse a tiempo de poder limpiar y secar las redes y volver a la mar al anochecer. /A cuántas no les vimos así, desayunar en la misma embarcación de las "tangas" o canecos que les llevaban de casa algun anciano o achacoso ya retirado, o algún niño! Y encima, a las horas, amamantaban en la misma embarcación a sus umetxus, llevados también por algún allegado dejado a su cuidado, para al terminar de despescar o desmallar pasar a las fábricas a descabezar o a empa-car anchoa.

Ivle queda un triste recuerdo de las mujeres gabarreras, las que trabajaban en la limpieza anual del canal de la ría, acarreando en copa/etas a la gabarra retenida en el centro del canal todo el fango negro que se pudiera recoger en la baja mar.

Las crónicas de las guerras carlistas hablan también de las mujeres rancheras ondarresas, y de las que animaban el cotarro con la más sana de las intenciones. También son del tiempo de la carlistada estos sabrosos versos referentes a nuestra villa:

Karlos Ondarruara
egun batez jua zan,
Madrilla esan dute
urrengo bueltan,
siñestu etzuenik
Ondarruan etzan,
eskin guzietatik
kanpan soñua zan:
tin tin kintin kintan
kalian ta plazan,
jende dena dantzan,
jaunak egiya da ori,
ala pasa zan.

(Un día se fué don Carlos a Ondarroa. Han dicho que la siguiente vuelta será a Madrid. No quedó en Ondarroa quien no lo óreyera. Por todas las esquinas se oía el campañeo, tin tan, quintín quintan. En la calle y en la plaza todo el mundo bailaba. Eso esverdad, señores. Así sucedió. I



Errixetalariak.

Ezin ukatu Ondarroa'n Jaungoikoaren grazi berezi bat dogunik. Mundu guztia iztegi billa ibilten dala, guk, iztegi barik, geure barruko berbakin jo ta blast esan eta erakusten doguz komeni yakuzanak. Brastada baten.

Errixetalaria zer dan?

Gure izketa edo berbetako izenik eta esateko erarik iñok batu ba dau, Plácido Mugica (gure zaarrak Blaxiro Muxika esango eben) jesuita langille amorratu ta jakintsu argia izan da.

Baiña... Sinistu lei, esate baterako, erderazko **mariposa** esateko 162 era batu dituala, "aiñari"tik asi eta "kukurrusf'era, eta gure **kalapitxi** dotorerik ez dabela batu?

Barriro: zer da errixetolari?

Orren billa nebillen, zeatz agertu nairik. Ba nekien ez dala burrukalaria antzeko. Erderazko "reñidor" ikusi ta ez dakar, 15 era aitatuarren. "Reyerta" begiratu, ta 22 era ezbardin, baiña gurerik ez. Begiratu "reñir" ta alako baten be, orren esateko ainbeste era aitatu ondoren, 53 garren dator "errietan egin", "reprender", "increpar" esan naiaren bardintsu.

Iztegi batzuen esanetan erderazko "reprender" = "corregir" da. Edo ta "condenar el dicho o hecho no conforme". Eta "increpar" = "reprender con dureza o severidad".

Era orretan, nirera nator. Gure errixetolariak, biotz gogorreko andrak barik, ba-koitza bere tokian lagateko bete-betekoak zirala esan bear.

Oker esanak eta zabalduak edo egiñak sits eta bits agertu ta aldatuta lagaten ekiezanak.

Indarra, gogoia, adorea ta nortasuna bear zan orretarako. Kontu egin, kale ta plazako errietak ez zirala ainbesteko, nai ta odolak berotu ta moñetak aidean erabili iñoiz.

Errieta jatorra, betea, tipikoa, jentea entzutera batzeko lakoa, balkoitik balkoira egiña izaten zan. Errekaren alderdi batetik bestera, zubi batetik bestera, balkoitik kalera, zerka tartetan...

Eztarria bear zan orretarako, abotsa, bular sendoak, indarra eta gatza. Endaz etorran nortasun bat. Brixak urtenda be, ezaupiderik ez galtzeko almena, azpiko gonak erakutsi bear ba ziran be, bear aiñako lotsa ta garbitasuna.

Benetan be, guk ezagutu genduzan andra errixetolariak, batzuk nai besteak, zuzentasun naikoak ziranik ezin ukatu; erriaren aurrerako entzute onaren alegintsu zirala autortu bear; batez be bakoitzaren izate, izen on, bake, nortasun eta ondra-

txoa zaindu ta aldeztu nai ebenak. Eta zenbat eta lagun geiago batu eurenak entzuten, askotan naiago izaten eben. Or egoan ba euren duintasuna!

Askotan, etorriaren etorriz, era askotako iztegia atara ta erabilten ebenik ezin ukatu, baiña, ain zuzen be, gauza guztiak komoda zarretan gordeteko asmatu eta sortu ete ziran ba?

Las reñidoras.

Una institución. ^Quien no recuerda a...

Callemos.

Creo que las reñidoras tenían una función muy digna. Cuando no existían los medios de comunicación social de los que hoy nos ufamamos, las errixetalaris eran como los abogados y defensores en público de habladurías, murmuraciones, ataques más o menos solapados, injurias, faltas de pago, atentados al honor y al pudor, desaires a la reputación familiar, etc, etc, etc,

Ante todo salían en defensa propia o de la familia. ¿Que luego de la defensa pasaban al ataque? ¿No decimos que la mejor defensa es el ataque?

El "errietan egin" vasco, de donde viene el o la errixetalaris, tiene según algunos diccionarios castellanos el significado de reprender, lo que es como corregir, condenar el dicho o hecho no conforme, o increpar, que vale tanto como reprender con dureza y severidad.

Sin los ruidos de la motorización y mecanización actual, en el silencio ondarrés de antaño, era cosa de segundos el atisbar una riña y salir inmediatamente /a gente a los balcones, ventanas o a la calle, para seguir las incidencias de la misma.

No me refiero a las pequeñas riñas del mercado o de la lonja de pescados, aunque también saltaran encrespadas las moñetas. Hablo de las grandes, de las que pudiéramos llamar de poder a poder, de balcón a balcón, río en medio, o de balcón a la calle, de puente a puente, cantón a las cercas.

Era un espectáculo típico, atrayente en cierto sentido, curioso. Eso sí, no apto para menores.

Las errixetalaris casi heredaban su afición y su modo de ser. Se conocieron miembros hábiles de familias en varias generaciones.

Voz y garbo, fuerza y dominio, valor y memoria lúcida eran imprescindibles en esta afición, así como dominio del léxico.

Hoy ya no saltan errixetalaris a la palestra. Casi hemos perdido totalmente este espectáculo. ¿Es que no las hay?

Uno cree que vivimos en un mundo más hipócrita y más corrompido. En un mundo de miedo y de cobardía. En este mundillo triste en que se oye comentar con frecuencia, sin saber condenar una sucesión de hechos por muy escandalosos, hirientes y denigrantes que sean: Es mejor callar, porque cualquiera sabe lo que nos depararán los nuestros. Nos falta la condición esencial de las errixetalaris: la mentalización del honor y la seguridad de nuestra conducta y la de nuestros allegados.

GAL-BIDEA - INDICE

ONDARRUTARRA NAZ	
IRASPENA - ERRI LEGEZKO NORTASUN ARTZEA	7
HISTORIA LOCAL - DATOS DE LA FUNDACION DE LAVILLA	
BERRIATUA ETA ONDARROA EZTABAIDETAN	15
DIVERGENCIAS CON BERRIATUA	33
ONDAMENDI ANDIAK - Las grandes calamidades	39
GURE ERRIKO BIZITZA AMARREN ETA LENENKIÑEN BITARTEZ	44
VIDA DE ONDARROA A TRAVES DE LOS DIEZMOS Y PRIMICIAS	49
ONDARROAKO PARROKIAREN AMARRENAK	
Participación en los diezmos parroquiales en el año 1.828.	53
FORMULAS ELECTORALES EN EL SIGLO XIX.	60
NUESTRO LEXICO	
Arraiñak sortzen dituenak - Derivados de los peces .	67
Itxas egoera eta koloreak - El color y las situaciones	
Urte aroak. Las estaciones del ano	71
Erriko esaera ta gogoetak - Refranes y pensamientos	
Esakera laburrak - Formas cortas de expresión	75

UMETAKO JOKO BATZUEN IZENAK	79
GURE GABONAK	80
DÉ NAVIDAD A EPIFANIA	87
ONDARRUTAR BERTSUAK VERSOS POPULARES	89
	90
	91
	93
1.909 urteko Mayatzaren 24 'ko galerrena	96
DANETIK ZERBAIT DE TODO UN POCO	101
	101
	103
	104
	107
	107
	109
	110
	113
	113
	116
	... 117